



Pello Zubiria Kamino

♦ ARGIAKO KAZETARIA

Ez lurperatu *Euskaldunon Egunkaria*

EZ DEZAGUN estali hilotz itsusi hori. Denon bistan egon dadila. Seguru haren ustel kiratsak inkomodatuko dituela bihotz oneko sinestunak eta demokrazia guay honen propagandistak. Ikuskizun polita ez du ematen, kateak itsusiak baitira hilotzaren gorputzean. Baina ez genuke utzi behar inpunitatez eta amnesia lurperatzen.

Zorionak eta besarkada bana Egunkaria Auzia 2 artxibatzen ikusi duzuenoi, aurretik Egunkaria Auzia 1 errugabetze orokorrek in bukatzeak askeago egin zintuztenoi bezala. Lehenbiziko epaiketaren ateetan berea preskripzioz ixten ikusi nuen honek hurbiletik sentitu dut gero zuek sentitutako lasaitze handia. Zuen familien ondoren sufritu du gureak zuen kalbarioko bidea, hainbeste drama txiki eta tragedia handiz bete.

Karpeta itxitako baten itxura duen kasuari, orde, odola dario oraindik. Askok beharko luke 2003ko otsailaren 20an emandako aizkorakadaren arrakalak orbaintzeko.

Non dira egun hartatik falta diren diru guztiak? Ez dakit bade-nik ere galera izugarri haren kontabilitaterik. Ez dut entzun Madrildik inor hurbildu denik haien galdezka.

Zertan dira *Egunkaria*z, hartan parte izan edo lagundu zuten beste enpresez eta zepo mixerak hartan harrapatu gintuzten pertsonen zientoka orri, minutu,

hitz eta iruditan zabalduetako irainak? Konpontzeko keinurik txiki-kenik ikusi ote zaio irain-ereileetako inori?

Argitu gabe diraute geure soinetan jasandako tortura eta tratutxarrek. Bihotzez eskertuta nago torturak salatuz ahalegindu zirenei ikerketa egin zedin, harik eta epaile espainolek formulismo hipokriten artean ito zuten arte. Adorez borrokatu zarete salaketaren bidean, jakinik aurrean dagoela aste honetan bertan *El País* egunkari progreak “*Un Estado dentro del Estado*” definitu duen gorputz militarra. Ez da oraindik sortu ez progrerik eta ez libera-

lik, ez apezpiku, ez epaile, ez ararteko, ez lehendakari, ez diputatu, ez ofiziozko bakegile, ez kristorik, horiei kontuak eskatuko di z k i e n i k .

Kontuak eskatu, diot: nork amestu horiek kontrolatzea...

Egunkariaren hilotzak abisatzen digu funtsean ezer gutxi aldatu dela Espainian 2003tik euskaldunokiko. Orduan guk kontatutakoen berdinak kontatu ditu geroztik beste askok, garrasi, haluzinazio, usain, jipoi, oinaze. Orduan bezala hedabide bat ixteko, nahi den edozein enpresa edo proiektu hondoratzeke, esku libreka dauzkate Madrildo kuar-teletan.

Ez hobiratu, arren, *Euskaldunon Egunkaria*. Ez, behintzat, zer egin zuten-ziguten jakin eta berriro beste inori egingo ez diotela bermea eskuratu arte. ■

Egunkariaren hilotzak abisatzen digu funtsean ezer gutxi aldatu dela Espainian 2003tik euskaldunokiko

IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

**Iñaki Petxarroman
Gutierrez**

♦
Doinua: Habanera.

Itxia, baina ez isildua

2003ko otsailak hogei zituenerako, lantoki genuen hura itxi zuten betirako. Martin Ugalde parkea, eguna argitzerako, mamu berdez bete zen, zetorren orori “alto!”. Lantokiaren ateetan, ohar eta giltzarrapo, urteetako ametsa bukatua zen *de facto*. Euskarak behar gintuen, atera Tolosarako, *Egunkaria*-ren lana *Egunero* hasten delako.

Itxia eta ez isildua lehen mezu eta hizki, biharamuneko azala jaso genuen ederki. Torturen itzal luzean erori ginen deblauki, elkartasun uholdea gezur artean aterki. Donostia gainezka eginda, goraka hasi poliki, nahiz bidea zaila izan aurrera egin behar beti. *Egunkaria* ez bada beste bat behar zen aurki: haiek itxita nahi zuten eta guk *Berria* ireki.

Hamaika urte luzetan mehatxuaren esklabo, polizi eta epaileak gezur artean oparo. Lehenik absoluzioa ezin lasaitu zeharo, artxibatu ondorenean lo egin dugu lasaia. Buruan dugu babestu gaituen herria, klaro! Askok eman diguzuenoi, ezin eskatu gehiago. Eta etsaiek zenbat kalte, zenbat sumin, zenbat trago... Auzia amaitu da baina mina oraindik hor dago. ■